



Tokiko Agenda 21eko Foroaren akta

2016ko apirilaren 21ean, 18:30etik 20:00etara, Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan.

100. tailerra eta erronka berria eskuen artean

“100” zenbaki koloretsuak ongi etorria ematen digu.

Gaur Legazpiko Agenda 21eko foroaren ehungarren topaketa partekatzen dugu eta foroak 15 urteko ibilbidea betetzen du. Zorionak!

Eta motibatzen eta pozten gaituen **erronka berri** batekin ospatuko dugu, datozen urteetan Foroaren egintza gidatuko duen erreminta nagusia izango delako: Legazpik Agenda 21eko 4. Ekintza-plana egiteari ekingo dio eta hauxe izango da plan horren izenburua: “**Legazpi Klima 2030**”.

Hastera goaz!

1. Nortzuk? Pertsona protagonistak

30 pertsona inguruk hartu dute tailerrean parte. Zehazki, honako hauek:

- **Herritarrak:**

Pilar Makibar - Rosa Makibar - Manuel Fernandez (Nagusilan) - M^a Jose Cantero - Begoña Santillan (Iratzarri) - Isabel Alfonso (Iratzarri) - Miren Pildain - Rogelio Barbeira (Buztintegi) - Iñaki Beldarrain - Koro Zabaleta (Olazabal institutua) - Patxi Imaz - Maite Odriozola (Haztegi ikastola) - Gurutze Laboa (Legazpiko Ingurugela) - Esther Agirre - Floren Gutierrez - Rafael Gomez (Buskabaso) - Nerea Maiztegi (udaletxeko gizarte-hezitzailea eta Legazpiko Gaztetxearen izenean) - M^a Cruz Lizarazu - Beberly Rodriguez (Oripavi) - Gentzane Arruabarrena (Oripavi) - Juan Carlos Agirre.

- **Udal arduradunak:**

Koldobike Olabide (Alkatea) - Eric Galvez (zinegotzia) - Alberto Bezunartea (zinegotzia) - Oscar Valbuena (zinegotzia) - Kepa Urzelai (zinegotzia) - Inma Hernandez (Industria, merkataritza eta ingurumen saileko teknikaria)

- **Teknikari laguntzaileak:**

Juncal Fernandez (Haizea Ikerketa) - Iciar Montejo eta Zorione Aierbe (Prometea), debatea dinamizatzen eta errazten.

Eskerrik asko guztioi!

Eskerrik asko Foroaren deiarri erantzun diozuelako eta tailerra edukiz bete duzuelako!



2. Berriak

Hasteko, Inma Hernandez teknikariak agendan jaso beharreko **2 proposamen** oso interesgarrien berri eman digu:



- **Maiatzaren 4an, asteartean**, ekintza desberdinak gauzatuko dira "**Legazpi, bidezko merkataritzaren hiria**" izenpean.
- **Apirilak 27-29, "Hiri eta herri iraunkorren Europako 8. Hitzaldia"** Bilbon.

12:30ean, Kale Nagusian, bidezko merkataritzako produktuen salmenta-puntua jarriko da eta kalea girotzeko ekintza desberdinak egingo dira, Garaguneren parte hartzearekin.

Hitzaldian "Hirien iraunkortasunaren gaineko Euskal Adierazpena" onartuko da eta bertan parte hartuko dute Legazpiko Udalak eta Olazabal institutuko Aitor Martinez eta Ane Leizeaga ikasleek. Azken horiek "Ekintza eraldatzaileak eta belaunaldi berriak" izeneko Gazteen Foroaren izenean hartuko dute parte.

Informazio gehiago helbide honetan:

<http://conferences.sustainablecities.eu/basquecountry2016/es/>

3. Gaurko gaia: markoa eta helburua

Legazpiko Udalak martxan jarri du Agenda 21eko 4. Ekintza-plana egiteko prozesua: Klima-aldaketa saihesteko estrategia eta garapen iraunkorra – Legazpi 2030- da bere izenburua eta honela deituko diogu laburtuta: "**Legazpi Klima 2030**".

Horretarako Udalak kanpoko laguntza teknikoa jasoko du eta hauek izango dira lan hori egingo duten enpresak: Haizea Ikerketa eta Factor CO2.

Testuinguru horretan, Juncal Fernandez legazpiarrak, Foroko parte hartzaile eta gaurko egunean Haizea Ikerketa taldearen laguntza teknikoa eskaintzen duenak, gaurko tailerraren markoa eta helburu zehatza adierazi dizkigu.

Testuingurua. Legazpi Klima 2030...

- Plan berriak, 1998an Aalborg gutuna sinatu zuenean Legazpiko Udalak garapen iraunkorraren alde lan egiteko hartu zuen konpromisoari **eman nahi dio jarraipena**, azkeneko 18 urteotan hainbat mugarritan zehaztu dena.
- **Plan iraunkorra, estrategikoa, zeharkakoa, parte hartzailea eta eraginkorra** izan nahi du. Bere baitan alderdi desberdinak hartuko dituena: lurraldekoak, ingurumenekoak, sozioekonomikoak eta zeharkakoak.
- Parte hartzean oinarritzen den prozesu metodologikoa planteatzen du eta fase desberdinetan gauzatuko da, non **Tokiko Agenda 21eko Foroaren papera oso garrantzitsua** izango den.

Zehazki, Foroak 2016an egingo dituen tailerretatik 4 gai hori lantzeko izango dira, diagnostiko fasean eta Ekintza-plana egiteko fasean ekarpenak eginez. Hauxe da aurreikusitako egutegia:

- **apirilaren 21ean:** udalerrriaren egungo errealitatea aurkeztea eta aztertzea
- **ekainaren 9an:** diagnostikoaren laburpen-agiria kontrastatzea.
- **irailaren 9an:** ekintzak biltzea.
- **urriaren 20an:** Ekintza-planaren proposamenari ekarpenak aurkeztea

Gaurko helburua. Foroaren iritziz, Legazpi gaur egun nola dagoen jakin nahi dugu.

Zehatz-mehatz, tailerrean ondorengo bi galderari modu kolektiboan erantzun nahi izan diegu:

?

Begirada hutsetik eta alderdi desberdinak aintzat hartuz (lurraldea, sozio-ekonomia eta ingurumena):

- Zuen ustez, zeintzuk dira **Legazpik gaur egun dituen gaitasun nagusienak?**
- Eta zeintzuk **erronka nagusiak eta hobetu beharreko gaiak?**

4. Emaitzak: taldearen hausnarketa eta ekarpena

Era grafikoan, hauxe da elkarrizketatik eta hausnartzetik, guztion artean eraki dugun emaitza.



Jarraian zehazten denaren arabera, hainbat kontu –adibidez: mugikortasuna, ingurumenaren kudeaketa eta beste batzuk- modu diferentean hautematen dituzte parte-hartzaileek edota ñabardura desberdinak dituzte.

Azken finean, gaur egun Legazpi nola ikusten dugun zehazteko ariketak norbanakoaren –eta Foroaren batuketa kolektiboa– ezagutzeko eta jasotzeko balio izan ditu.

Ikus dezagun jarraian zehatz-mehatz.

Ikuspegi globaletik eta iraunkortasuna aintzat hartuta, **Nola ikusten dugu gaur Legazpi eta nola bizi gara bertan?**



Gure ustez ondorengoak dira **gaur egun Legazpi** dituen indarguneak:

- **Oro har, Legazpi gaur egun bizi-kalitate hobea du.**
 - Herri lasaia izaten jarraitzen du.
 - Airearen kalitatea hobetu egin da.
 - Berdegune ugari dugu eta egoera onean, bai hirigunean bai inguruko mendietan ere.
 - Langabezia-tasa txikia da.
- **Mugikortasun iraunkorra eta udalerrir iritsi-erraza lortzearen alde egindako apustua eta emandako urratsak.**
 - Irigarritasuna bermatzen duten ekintzak gauzatzen ari dira: arrapalak, igogailuak,
 - Bidegorrien sarea.
 - Legazpi oinezkoentzako eremu egokiak ditu.
 - Hirigunean zirkulazio-aldaketak eman dira eta oztopoak jarri zaizkie autoei, oinezkoen eta bizikletarien onurarako.
 - Neurria antolatutako garraio publikoa dugu. Legazpi ondo komunikatuta dagoen herria da.
 - Junetorri zerbitzuak batik bat auzoan bizi diren adineko pertsoneri herrigunera etortzeko aukera ematen die.
- **Iraunkortasunarekiko konpromisoa.**
 - Tokiko Agenda 21aren bitartez, Udalak iraunkortasunarekiko konpromisoa izan du eta izaten jarraitzen du. Ibilbide luzea egin da.
 - Agenda 21eko Foroa eta herritarren parte hartzea, gizartearen traktore izan dira.
 - Legazpiarren ingurumenarekiko sentsibilizazioa eta kontzientzia hobetu egin da.
 - Ingurumena zaintzeko ekintza eraginkorrak egiten jarraitzen da, hala nola, erreka garbitzeko Erreka Eguna, jarduera ekonomikoen ingurumen-kontrola,....
- **Hiri-hondakinen kudeaketa.**
 - Modu esanguratsuan igo da hondakinen gaikako bilketa; halaber, gora egin du herritarren kontzientziarioak eta konpromisoak arlo horretan.
- **Auzoen hiri-kalitatea.**
 - Legazpi hiri-kalitate handiko auzoak ditu; egitura berezia duten eraikinak ditu, inguruan espazio libre eta berde ugari dutenak, ...
 - Bestalde, auzoetako bizi-kalitatea hobetzen ari da, bertara iristeko erraztasunak eskainiz, aisiarako guneak egokituz, ...

- **Argiteria.**

- Ikaragarri hobetu da azkeneko urteotan, LED teknologiarekin.

- **Bizilagunei eskaintzen zaizkien zerbitzu publikoak.**

- **Bizilagunen bizi-itxaropen handia.**

- Gipuzkoako gainerako udalerriekin alderatuta, Legazpi du 80 urtetik gora duten herritar-kopuru handiena.
- Azkeneko urteotan asko hobetu da adineko pertsonen eta gizarte-babesgabetasun egoeran dauden pertsonen eskaintzen zaien arreta, eskaintzen zaizkien zerbitzuei dagokienez,....
- Izan ere, Legazpiko adinekoen Gizarte-zentroa Euskadiko aktiboenetakoa da. Hirigunean kokatuta dagoenez, kokaleku egokia du eta, gainera, belaunaldien arteko harremanak sustatzen dituzten ekintza asko antolatzen dira.

- **Boluntarioak eta elkartegintza.**

- Legazpin elkarrekin eta pertsona asko daude musu-truk lan egiteko boluntario gisa ari direnak.
- Handia da herrian dugun giza kapitala.
- Integrazioaren alde lan handia egiten da, hala nola behar bereziak dituzten pertsonen alde, bidezko Merkataritzaren bidez,...

- **Udalerriko kultur dinamismoa.**

- Legazpi gizarte-mugimendu garrantzitsua eta askotarikoa du: kultura, gazteria, kirola, gizarte ongizatea,... eta, gainera, ekipamendu onak ditu.
- Zehazki, Gaztetxea oso aktiboa da eta Udalaren laguntza jasotzen du kudeaketa-lanetarako.



Egungo Legazpiren "indarguneak" ezagutu ondoren, ikus dezagun Foroan parte hartzen dutenen iritziz, zeintzuk diren hobetu beharreko gauzak.



Honakoak azpimarratu ditugu **hobetu beharrekoen artean:**

- **Mugikortasuna: urratsak eman diren arren, gehiago egin behar da. Eta gainera, egindako jarduketek kontuan hartu beharreko eraginak izan dituzte.**
 - Oraindik ere asko erabiltzen dugu autoa udalerrian; gureganatuta dugun ohitura da. Eta, gainera, pertsona batzuk abiadura handian ibiltzen dira -ez da orduko 30 kilometroko abiadura-muga errespetatzen-; horren ondorioz, koskak jarri behar izan dira errepidean eta horiek desatseginak dira erabiltzaileentzako eta garraio publikoa erabili behar duten behar bereziak dituztenentzako, adibidez.
 - Bizikletaren erabilera gehiago sustatu daiteke eta sustatu eta erraztu behar da: bidegorrien sarea aztertu behar da, bizikletan ibiltzea gero eta zailagoa delako; zergatik ez da bizikletak alokatzeko sistema bat sustatzen?
 - Zirkulazioaren eta trafiko-noranzkoaren aldaketek eragin negatiboa izan dute beste auzoetan. Hori da, adibidez, San Ignazio auzoan gertatu dena: gaur egun handitu egin da trafikoa, kutsadura, autobusen eta kamioien joan-etorria,... etxeak errepide ondo-ondoan dauden auzoa denean.
- **Irisgarritasuna: oraindik badago zer egin**
 - Herrian badaude konpondu beharreko irisgarritasun-arazoak eta lan zehatzak daude egin beharrekoak: arrapalak, igogailuak, egoera txarrean dauden espaloiak,....
 - Arantzazu auzoa 6an, adibidez, aldapa gogorra dago eta zerbait egin beharra dago bertatik gurpildun aulkiekin, erosketako orgekin,.... pasatzeko.
- **Argiteria: badago non hobetu**
 - Adibidez: Mantxolan, San Ignazio auzoan, Olaberrian ...
- **Ingurumen-kudeaketa: oraindik hor ditugu hainbat arazo eta erronka**
 - Errekaren garbiketa: "oihana dirudi". Nola kudeatu daiteke erreka garbi mantentzea biodibertsitatea zainduz?
 - Airearen kalitatea: datuek airea hobetu egin dela diote baina oraindik usaina dago.
 - Biodibertsitateari eta berdeguneen kudeaketari dagokionez, ezer gutxi egin da. Hirigunean berdeguneen falta sumatzen da, basoetan pinua eta antzeko espezieak daude bakarrik, ...
 - Energia: oso gutxi aztertu da energiaren eraginkortasuna udalerrri mailan eta gehiago egin beharko litzateke arlo horretan eta udal eraikinen hobekuntzan.
- **Hondakinen kudeaketa; gutxiago sortzea da erronka**
 - Azken urteotan gora egin du gaikako bilketa-tasak baina ez da hondakinak murriztea eta berrerabiltzea landu eta hori da bidea hondakin gutxiago sortzeko. Horrela bakarrik egin dakiok aurre dugun arazoari: "zer egingo dugu errefusarekin?", zer gertatzen da zabortekiarekin/errautegiarekin?, ...



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



- Materia organikoa jasotzeko atez-ateko sistema utzi eta 5. Edukiontziaarekin hasi garenean lehen erabiltzen ez genuen poltsa bat erabili beharrearekin egin dugu topo.
- **Iraunkortasunarekiko kontzientzia eta heziketa hobetu egin daiteke**
 - Egia da asko aurreratu dela baina kalean ingurumenaren aldeko kontzientzia handiagoa falta da.
- **Landa-eremuak: lanean jarraitu behar da**
 - Ditutzen zerbitzuak hobetzeko: irisgarritasuna, natura-ingurunean edateko iturri gehiago behar dira, ...
 - Arazo zehatz bat: Olaberriako etxe handia erortzeko arrisku larrian dago eta konpondu beharreko kontua da hori.
- **Euskara: oso gutxi erabiltzen da kalean**
 - Modu batera edo bestera gehiago sustatu behar da.
- **Boluntario-taldeak, elkartegintza eta herritarren parte hartzea indartu egin daitezke**
 - Egia da handia dela elkarteen, taldeen, ... dinamismoa baina jende gaztea falta da. Ezinbestekoa da belaunaldien arteko erreleboa lantzea.
 - Ondo egongo litzateke Udalaren eta erakundeen edo elkarteen arteko komunikazioa areagotzea eta hobetzea, elkarren aurka lehiatu beharrean; eta batik bat, Udalaren eta gazteen artekoa, haien inplikazioa sustatuz.
 - Agenda 21eko Foroa dagoen bezalaxe, interesgarria izango litzateke udalerraren ikuspegi estrategikoa landuko lukeen foro bat berreskuratzea (bere egunean egon zen Legazpi Bai! adibidez) edo sortzea.
 - Nola da genero ikuspegia eremu honetan? Premiazkoa da berdintasunaren sustapena lantzea, adibidez elkarrekin.
 - Parte-hartze prozesuek laguntzen dute, egiten direnean eta emaitzak lortzen direnean.
- **Biztanleen zahartzeak erronkak sortzen ditu etorkizunera begira**
 - Joera mantentzen bada, urte gutxi barru txiki geratuko da gaur egun dugun eguneko zentroa.
 - Ildo horretatik, eta zahartze aktiboaren ikuspegitik, adineko pertsonak gero eta zerbitzu gehiago beharko dituztela aurreikusitako beharko da; bestetik, hori hala bada, enplegu berriak sortzeko aukera izango litzateke.
- **Enplegua eta ekoizpen-jarduera: trantsizioan gaude, dibertsifikatu beharra dago**
 - Azkeneko urteotan itxi egin dira enpresak, enplegu gutxiago sortu da eta Legazpiko herritar askok udalerritik kanpora joan behar izan dute lan bila.
 - Era berean, badirudi Legazpi trantsizio-garaia bizi duela eta herri industrialia izatetik beste zerbait izatera pasatuko dela. Zehaztu beharra dago. Eta zentzu horretan dibertsifikazioaren aldeko apustua egin beharra azpimarratu da; industria modernoa eta garbia beste jarduera batzuekin konbinatu beharra dago, hala nola, pertsonen zerbitzuak eskaintzearekin, turismoarekin eta naturarekin (ingurunea eta parke naturala) lotutako jarduerekin ...



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



- Tokiko merkataritza berriro orientatu beharra eta lagundu beharra dago; eta horrek legazpiarrok pentsamoldea aldatzea dakar. "kanpoko hobetzea da" eta horrelako ideiak baztertu behar ditugu eta herritik kanpo, azalera handietan, erosteko ohiturak aldatu behar ditugu, tokiko merkataritzaren aldeko apustua eginez eta Legazpin ezarri daitekeen merkataritzaren alde eginez.
- Premiazkoa da tokiko ekimenak eta ekintzaitasuna sustatzeko moduak bilatzea, gazteen langabezia-tasa murrizteko.
- Oso garrantzitsua da lehenengo sektorea babestea. Baserria giltzarria da elikagaien tokiko ekoizpena eta kontsumoa sustatzeko.

Ikus dezakegunez, Foroak egungo Legazpiren begirada zabala eta desberdina osatu du, beti ere ikuspegi eraikitzailetik zer hobetu daitekeen azalduz. Abiapuntu bikaina Legazpi Klima 2030 plana egiteko prozesuaren atarian. Lan ederra!

4. Bukatzeko

Tailerraren helburua bete dugula eta osatuko den Legazpi Klima 2030 planari Foroak balioak, edukiak eta ezagutza gehitzen dizkiola uste dugu; eta uste horrekin geratzen gara eta ematen diogu amaiera gaurko tailerrari.

Beti bezala plazerra izan da,
Eskerrik asko!